

ARGIA SARIAK 2009

Xabier Letona ARGIAko zuzendariaren hitzaldia

Duela astebete kazetari eta idazle batekin egin nuen topo lantoki ondoko taberna batean eta hala esan zidan, gutxi gora behera: “Prentsarenak egin duela hi, joan zaitezke pentsatzen beste zerbaitetan”. Eta nik baietz, prentsa estu zebilela eta hori ez dela berria guretzat. Etan erak, “Baina Los Angeles Times eta El Pais desagertuko badituk, pentsa!, ni hasia nauk alternatibak bilatzen”.

Tira, anekdota eskola besterik ez da, alea da interesgarria... edo beldurgarria, nondik begiratzen den. Bai, Los Angeles Times, The New York Times, The Miami Herald, Le Monde, El Pais... batzuk ixtekotan eta besteak oso larri etorkizunarekin. Erraldoi horiek larri! Egia da, hotzean pentsatuta, hotzikara goitik behera sentitzen dut bizkarrezurrean.

Baina hotz-beroak biziartzen du barrena eta etorkizuna berotasun horretatik begiratzea besterik ez dagokigu. Berotik heldu behar, bestela jai. Txikiaren moldatze ahalmenetik, bestela jai. Txikia eta erreferentziala, horra hor aurrera egiteko guk bilatzen ditugun klabe garrantzitsuak.

“Ur tanta soil batean galaxia guztietan batera diren izarrak baino molekula gehiago daudela jakin izan dudanetik, unibertsoari errespetua galdu diot”. Manuel Vicent idazlearen zutabe hasiera bat da eta txikiaren handitasunari luzatutako begirada poetiko hori benetan ederra iruditu zitzaidan.

Eta duela gutxi kazetaritzaz egiten zuen hausnarketan “gauza txikiak” irakurri diot Mariano Ferrer kazetari eredugarriari: “Ia dena egin daiteke pantailatik bertatik. Lehen informazioa bilatu egin behar zenuen eta jardun horretan ez zenituen historia handiak topatzen, baina istorioak ehuntzeko gauza txikiak topatzen zenituen. Gaur egun ez dago denborarik, ez gogorik, ez beharrik, eta kazetaria gizartetik isolatzen da”.

Handik gutxira, Koldo Izagirrek ARGIAN bertan egindako elkarrizketan erantzundakoak badu zerikusirik Ferrerrek esandakoarekin: “Erreportajeak egingo ditu Saharara edo Estatu Batuetako hauteskundeetara joanda [egungo kazetariak

ari da Izagirre], baina kaleko kazetaritza, inguru hurbileko berri ematen zuena, hori galdua dago aspaldi samar”.

Gure jardunaz badugula zer pentsaturik alegia. 2008an hausnarketa interesgarria abiatu da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatuta. Ikusiko dugu zertan amaitzen den. Hiztun gutxiko komunitatea osatzen dugu, txikiak gara, eta gurekin batera bizi diren hizkuntza erraldoiak ezin ditugu denean imitatu. Handikeriatan galtzen gara sarri eta hori ere bada euskarazko kazetaritzan dugun arriskueta bat.

Kazetariei ez ziela esango nola jardun behar zuten, zioen ETaren agiriak duela gutxi, lerro artean adierazpen askatasuna mila zatitan txikituz. Ulertu hori. ARGIAk bereziki helarazi nahi die elkartasuna EITBko langile eta zuzendaritzari, eta erasotuak izan ziren gainerako kazetariei. Eta zer eta poza adierazi behar gainera, beira zati artean inor bertan zerraldo geratu ez zelako, hori ere posible izan zen eta.

Elkartasuna luzatu nahi diogu Karmelo Landa gure kolaboratzaileari ere, 1997an bezala berriz ere preso, baina bere ideientatik ez, hori ez, talde armatuko kide ei da orain. Ulertu hori ere. Arantza Urkaregik ere fin erantzun izan du guk artikulua eskatutako bakoitzean. Eta Egin-eko administrazio kontseilukoa izateagatik katez lotu zuten Jesus Mari Zalakain edo kazetari izateagatik Teresa Toda. Ulertu hauena ere.

Ez, ezin diegu guru buruei gatazka bortitzaren zurrunbilan joaten utzi. Informazioa eta analisisia da ARGIAk gure orrietan eta sarean eskaini dezakeena, elkartasuna eta salaketa bozgorailu honetatik. Eta nahi sendo bat, ametsaren eremuan jausten utzi behar ez dena, errealtatearen interpretazioan gaudenok, kazetariok, bereziki defenditu eta bultzatu behar duguna: konpondu dezagun konpondu beharrekoa elkarriketa eta negoziatioaren bidetik. Gainerakoak ez du zuloa ondo itxiko.

Eta ahaztu baino lehen, gehienok jakingo duzue dagoneko, baina ARGIAkook aurten gure 90. urteurrena ospatzen dugu. 1919an hasi zen Zeruko Argia, 1921ean Argia. Lekutan dira datak. Baina gu hemen gaude, une gaitz hauetan berriz ere maniobratzeko gai izango garela.

Kazetaritzan eta enpresa kudeaketan asmatu beharko dugu horretarako, duda barik, baina baita ere gure komunitatea indartzen ere. Gatazkari erreferentzia egin



diot oraintxe bertan, eta horrek pertsona, talde eta gizartean oro har, sakabanaketa dakar.

Garapen bidean da euskara, bide konplexu eta gaitza du aurrez aurre, normaltasuna lortu nahi duen edozein hizkuntzarentzat berez zaila den bidean. Eta gainera gatazka bortitza jasan behar du, horrek dakarren zamarekin. Egoera horri aurre egiteko mota askotako lanak egin beharko dira, baina bat oso garrantzitsua, euskara eta euskal kulturaren inguruan kohesio guneak bultzatzearena da gure ustez. Horretan ere ari gara ARGIAN. Gune zabala da gurea, iritzi oso desberdineko jendearen ikuspegiak bildu nahi ditugu, hori euskararen garapenerako funtsezkoa delakoan.

90 urte, asko dira, duda barik. Eta asko dira hainbeste zorte izan ez dutenak. Ttipi-Ttapa telebistak ez du hainbeste iraun, ez da erraza ohiko telebista egitea. Esan ziguten, "argi ibili telebista kontuekin, oso garestia da". Behin baino gehiagotan ikusi dute amildegia ertzetik, baina Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza politikaren bultzada erabakigarria izan da. Zorionez badute zertan jardun, animo eta besarkada bat haientzat ere.

Eskerrik asko beste behin ere etorri zareten guztioi...

Lasarte-Orian, 2009ko urtarrilaren 30ean